

ISSN: 2530-6561
2019ko azaroa
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia

Carlos Askunze Elizaga
María Angeles Díez López

Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia

Carlos Askunze Elizaga

REAS Euskadi.

María Angeles Díez López

UPV/EHUko Hegoa Institutua eta REAS Euskadi.

Aurkibidea

Sarrera	5
1. Ekonomia solidarioa: ekonomia kapitalistaren ordezkoko ikuspegia	5
2. Merkatu kapitalistak bizitzaren aurka	8
3. Zer da merkatu soziala?	10
4. Merkatu soziala indartzeko tresnak	13
5. Merkatu sozialera eta harago	17
Bibliografia	17

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Xabier Gainza
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurratzaga
Iker Etxano
Mertxe Larrañaga
Elena Martínez Tola
Mikel Zurbano

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia

Egilea: Carlos Askunze Elizaga, María Angeles Díez López.

hegoak zabalduz - 15. zk. 2019ko azaroa

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. / Faxa: 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak,
Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:

Aitortu-EzKomertziala-LanEraterririkGabe 3.0 Espainia.



Lizentzia osoa:

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/legalcode.eu>

Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Laburpena: Ekonomia solidarioa ekonomia kritikoaren ikuspegi moduan gero eta gehiago agertzen da kapitalismoaren ordezkotako zibilizazio-paradigma bat zehazteko eztabaidetan. Alabaina, ekonomia solidarioa ez da soilik proposamen teoriko bat, ekonomia eta gizartea eraldatzeko alternatiba izan nahi duen jardunbide bat baizik. Justizian, lankidetzan, eta elkarrekotasunean oinarritutako ekoizpen-, banaketa-, kontsumo- eta finantzaketa-harremanak sortzea du xede, pertsona guztien eta planetaren ongizatearen zerbitzura. Eta, sorrera horretan, merkatu soziala erdigunean dago, ekonomia solidarioa hazteko eta hedatzeko estrategiaren ardatz modura, alegia; merkatu sozial hori sortzeko, lankidetzaren eta elkartasuna sustatuko dira, merkatu kapitalistako lehia eta jardunbide baztertzailerak beharrezkoak. Merkatu sozial horren xedea kontsumo kontziente, kritiko eta eraldatzaileko eremua sortzea da, hiperkontsumismoari aurre egiteko. Merkatu sozial horretan ekoizpeneko eta ugalketako lan guztiak balioetsiko dira, bai eta ekonomia solidarioaren zati diren beste harreman ekonomiko mota batzuk ere, zeinak ezkutatu eta devaluatuak izan diren ohiko merkatuetan. Merkatu sozial hori bere hazkundera ahalbidetu eta sustatuko duten tresna propioak eta egokituak garatzean oinarrituko da.

Hitz gakoak: ekonomia kritikoa, ekonomia solidarioa, merkatu sozialak.

Abstract: Solidarity economy is achieving prominence as a critical economy perspective in the discussion around a new civilization paradigm to replace capitalism. Nevertheless, solidarity economy is not just a theoretical proposal; it is a praxis, or a set of alternative practices for social and economic transformation. It aims to establish production, distribution, consumption and financial relationships based on justice, cooperation and reciprocity for the welfare of every people and the planet as a whole. Within this aim, the social market plays a critical role as the strategy for unfolding the solidarity economy. A social market built upon the impulse of inter-cooperation and solidarity, in sharp contrast to competence and the discriminatory practices of the capitalist market. A social market that seeks to create a self-conscious, critical and transformative consumption space against hyperconsumerism. A social market where every productive and reproductive work is valued, as well as all the economic relationships that make the solidarity economy and have been made invisible and devalued by conventional markets. A social market based on its own, adapted tools, to make possible its future growth.

Keywords: critical economy, solidarity economy, social markets.

Sarrera


Ekonomia kritikoko proposamen batek ekonomia eta gizartea eraldatzeko asmoa badu, eta pertsonen eta planetaren bizitza eta iraunkortasuna erdigunean izango dituen zibilizazio-paradigma berria eraiki nahi badu, arreta oso berezia jarri beharko du merkatu kapitalistan eta berorren funtzionamenduan. Aintzat hartzen baditugu kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka eta merkatu askeak gizakietan, ekologian eta gizartean eragindako kalte kontaezinak, ordezeko aukerak eman beharko ditugu; ordezeko aukera horietan, ekonomia-, finantzaketa-, ekoizpen-, merkaturatze- eta kontsumo-harremanak garatzeko, beste balio batzuk eta jardunbide bidezkoago eta iraunkorragoak, lankidetzakoak eta solidarioagoak hartu beharko dira oinarrian. Trukerako eremu alternatibo hori Merkatu Soziala da.

Dokumentu honetan, merkatu sozialak Ekonomia Solidarioaren hazkundera eta garapenera duen garrantzia azaldu nahi izan dugu. Horretarako, hasteko, ekonomia kapitalistaren alternatiba den ekonomia kritikoko ikuspegi horrek zer esan nahi duen, eta jardunbide ekonomiko eraldatzaileek eta beste teoria ekonomiko kritiko batzuekin zer harreman dituen jakin behar dugu. Bigarrenik, eta oso labur, bizitzaren eta kapitalaren arteko gatazka merkatu kapitalistaren funtzionamenduen logikan zein elementuren bidez gorpuzten den azalduko dugu. Hirugarrenik, oraingoan zehatzago, merkatu soziala zer den, zer balio, helburu eta eragile dituen, eta trukerako zer logika sustatu eta indartu nahi dituen azalduko dugu. Azkenik, maila operatiboago batera jaitsi eta Ekonomia Solidarioko sare batzuen berri emango da, nolabait, merkatu soziala sustatzeko garatzen ari diren tresnak azalduz.

1. Ekonomia solidarioa: ekonomia kapitalistaren ordezeko ikuspegia

Gaur egun, inguratzen gaituen errealitate ekonomikoa behatzen dugunean, askotariko esperientzia ekonomiko eraldatzaile berriak aurkitzen ditugu: irabazi-asmorik gabeko kooperatibak, laneratzeko enpresak, banku etikoak, bidezko merkataritzako ekimenak, nekazaritza ekologikoko kontsumo-taldeak, denbora-bankuak, aseguru etikoak, moneta sozialak, truke-sareak... Jardunbide ekonomikook askotariko tamainak eta antolamenduak dituzte, baina mugimendu beraren zatitza hartzen dira, hots, enpresa eta erakunde horiek guztiak ekonomia ulertzeko eta egiteko modu alternatibo baten barruan daude: Ekonomia Solidarioan.

Hain zuzen ere, ekonomia kapitalista eta neoliberalaren oinarriko lehentasun-sistemaren ordezeko aukeratzat hartzea da Ekonomia Solidarioaren ideia nagusia (ikus 1. irudia): «*Ekonomia bitartekoa dela –eta ez helburua– aldarrikatzen duen ikuspegi eta jardunbidea da, eta pertsonen eta komunitatearen garapenera zerbitzura dago, pertsonen bizi-kalitatea eta haien gizarte-ingurunea hobetzen lagunduko duen tresna modura. Ikusmolde hori, beraz, pentsamenduaren eta jardueraren ekonomikoaren ikuskera etikoan eta humanistan oinarritzen da, eta pertsona eta komunitatea garapenera erdigunean kokatzen ditu» (Askunze, 2007: 107).*



Iturria: Askunze, 2007:107.

Horixe diote beste egile batzuek ere: “*Ekonomia Solidarioa Ekonomia Sozialaren enborrean jaio da, eta harreman ekonomikoa beste parametro batzuetatik birpentsatzeko ahalegina dakar. Kapitalaren logikaren,*

esfera publiko eta pribatuen merkantilizazio hazkorraren eta irabazi handiena bilatzearen aurrean, Ekonomia Solidarioak justizian, lankidetzan, elkarrekikotasunean eta elkar laguntzean oinarritutako ekoizpen-, banaketa-, kontsumo- eta finantzaketa-harremanak sortu nahi ditu. Kapitalaren eta horren metaketaren aurrean, Ekonomia Solidarioak pertsonak eta haien lana jartzen ditu sistema ekonomikoaren erdigunean, eta merkatuei rol instrumental hutsa ematen die, betiere pertsona guztien ongizatearen eta bizitzaren eta planetaren ugalkortasunaren zerbitzura» (Pérez de Mendiguren et al., 2009:13).

Beraz, argi eta garbi, Ekonomia Solidarioa ekonomia kritikoaen ikuspegi eta alternatiba erradikala da. Erradikala da, errotik eta behetik aldatu nahi duelako ohiko ekonomiaren ekoizpen-, banaketa-, kontsumo- eta finantzaketa-harremanen oinarriko lehentasunen sistema. Erradikala izateak esan nahi du ekonomiaren lehentasunak eta giza eta gizarte-harremanetan eta naturarekiko harremanetan duen papera irauli nahi dela. Erradikala izatea da eraikuntza politiko, sozial eta ekonomikoaren erdigunean kokatzea pertsonak, planeta eta iraunkortasuna.

Era berean, garrantzitsua da esatea Ekonomia Solidarioa, proposamen teoriko alternatibo moduan, etengabe eraikitzen ari den ikuspegi dela, eta ikaskuntzako prozesu jarraitu hori ez dela ikuspegiaren oztopotzat hartu behar; aitzitik, ikuspegiak bere burua berreraikitze eta pentsamendu gero eta integratzaileago, ulerkorrago eta sistemikoago baterantz joateko duen gaitasuna erakusten du.

Ekonomia Solidarioarekin elkarriketa-prozesu irekietan dauden bi arlo edo alderdik sustatzen dute eraikuntza-prozesu hori. Batetik, etengabe eraldatzen ari diren jardunbide ekonomiko alternatibo eta askotarikoekin lotuta dago; hain zuzen ere, tradizioz, Ekonomia Solidarioak bere diskurtsoa elikatze eta sustatzeko erabiltzen du lotura hori. Hala, Ekonomia Solidarioaren kontzeptua mundu osoko hainbat tokitan sortu diren ikuspegi eta jardunbide horiekin batera garatu da; hauxe dira ikuspegiok: «ideia eta ikuspegi teorikoen, errealitate sozioekonomiko eta instituzionalen eta enpresen eta elkarleen jardunbideen multzo heterogeneoa, zeinak XX. mendearen azken laurdenetik gizarte garaikideetako ekonomia eta prozesu ekonomikoak ulertzeko beste modu bat garatzen joan diren» (Pérez de Mendiguren et al., 2009:13)¹. Ekonomia Solidarioak, ikuspegi modura, eta ikuspuntu kontzeptualetik, aniztasun hori guztia barne hartuko duen gorputz teoriko bat sortu nahi du.

Bestalde, eta aldi berean, Ekonomia Solidarioa ekonomia kritikoko beste korrante batzuetako proposamenekin erlazionatzen da, esaterako, ekonomia feministaren, ekonomia ekologikoaren, bizimodu onaren eta deshazkudearen proposamenekin, eta eztabaidarako eta hausnarketarako bide irekiak ditu guztiek. Bide horien xedea ez da ikuspegiak kontrajartzea, baterako ikasketa-prozesuak hastea baizik, Ekonomia Solidarioaren proposamenak eta diskurtsoa aberasteko.

Ikuspegi horiek guztiek kapitalismo neoliberalak kritikatzeko dute eta zalantzan jartzen dituzte gaur egungo garapen-paradigman nagusi den ikuspegi androzentrikoa eta ohiko ekonomiak zabaldu eta sustatu duen ustezko hazkunde mugagabea; kontsumo neurrigabea eta etengabe hazten ari den ekoizpenean oinarritutako garapen ekonomizistaren eta produktibistaren aurka daude, kapitalaren metaketa pertsonen eta haien premien eta gaitasunen ginetik jartzen dituelako eta ez delako arduratzen bere helburuak lortzeko gizakietan, gizartean eta ekologian eragin dituen kalteez. Zalantzan jartzen dute iparralde aberatsak eraikitako garapenaren ideia, eta zenbait termino birpentsatu eta ulertu egin behar direla defendatzen dute, esaterako, garapenak eta ongizateak, beste ikuspegi dekolonial batzuetatik begiratuta izan ditzaketan askotariko esanahiak. Eta, zehazki, guztiek kapitalaren eta bizitzaren gaur egungo gatazka onartzen dute². Pentsamendu ekonomiko nagusiak ikusezin bihurtu du gatazka hori, eta gaur egungo sistema sozioekonomikoak funtzionatzeko baldintzak eutsiezinak direla ezkutatu du.

Horregatik, azken urteotan, Ekonomia Solidarioak gero eta ideia berri gehiago hartu ditu korrante kritikoa horietatik, eta bere gorputz teorikoan txertatu ditu; halaber, bere diskurtsoaren barruan sartu du ekonomia Feministak proposatutako bizitzaren iraunkortasunaren kontzeptua. «Ez da erraza iraunkortasunaren ideia

1 Ekonomia Solidarioak munduan duen garapena sakonago ezagutzeko, ikus Pérez de Mendiguren et al., 2009 eta Askunze, 2013.

2 Gatazka hori hobeto ulertzeko, ikus Pérez Orozco, 2014.

definitzea. *Dimentsio anitzeko ideia da, eta askotariko iraunkortasunak hartzen ditu barne: ekologikoa, ekonomikoa, soziala eta gizakiari dagokiona, bai eta horien arteko harreman guztiak ere*» (Carrasco, 2014: 38).

Beraz, eta postulatu horien ildo beretik, Ekonomia Solidarioak paradigma berri bat defendatzen du, zeinetan garapena pertsonen bizimodu onean eta haien gaitasunen garapenean oinarrituko den, norbanakoen eta taldeen ongizatea lortze aldera. Pertsonak garapenaren helburu izan behar dute, eta ez soilik bitarteko. *«Garapenerako proposamen horrek ekonomiaren dimentsio etikoa berreskuratzen du, eta pertsonen bizitza jartzen du paradigma berria eratzeko prozesuaren erdigunean, banako nahiz taldeko askatasun-irizpide batzuetatik abiatuta, gizarte-justiziako esparru batean»* (Díez eta Askunze, 2018: 29)³.

Garapen-proposamen horrek ez du arriskuan jarri behar bizitzaren eta planetaren iraunkortasuna; aldiz, bizimodu ona bermatuko duten prozesu guztiak mantentzen lagundu behar du, abiapuntutzat hartuta pertsonak (emakumeak eta gizonak) elkarren mendekoak (zainetak behar ditugu) eta ekomendekoak (natura behar dugu) garela. Yayo Herrerok behin eta berriz gogorarazi duenez, *«pertsonen bizitzan, bi mendekotasun material saihetsezin daude, zeinak, bitxiki, ezkutuan dauden ohiko ekonomiaren eskema teorikoetan, nahiz eta gizakion funtsezko alderdia izan. Hasteko, naturaren mende gaude... Alabaina, horrez gain, elkarrenganako mendekotasun handia dugu»* (Herrero, 2014: 57).

Ondorioz, Ekonomia Solidarioaren garapen-proposamenarekin hertsiki lotuta dauden balioak eta gaur egungo eredu kapitalistaren oinarrian daudenak oso desberdinak dira: *«pertsonak eta herritarren erakundeak ahalduz, lankidetzan eta lehiakortasunik eza oinarritutako sareak sustatzea, erabakiak hartzeko eredu demokratikoak garatzea, ekologia kontserbatzea, aukera-berdintasuna sustatzea, bizitzaren ugalketarekin eta zainketarekin lotutako prozesuak balioestea, aberastasuna eta finantza-tresnak baldintza etikoetan sortzea, baztertutako pertsonen eta taldeen gaitasunak indartzea, tokiko giza garapenaren zerbitzurako berrikuntza sozioekonomikoa sustatzea...»* (Askunze, 2013: 102).

Eta, balioez hitz egitea printzipio etikoez aritzea denez, gaur egun Ekonomia Solidarioaren barruan dauden sareetako batzuek balio horiek zehaztu dituzte, Ekonomia Solidarioa hedatzeko gidatzat hartu ahalko den arau-esparrua sortzeko. Horixe egin du Ekonomia Alternatibo eta Solidarioen Sareak (REAS) Espainiako estatuan, *Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutuna* sortu duenean. Hauek dira aurkeztutako printzipioak, laburbilduz⁴:

1. Ekitatea: duintasunaren, eskubideen eta aukeren berdintasuna onartzea pertsona guztiei, haien desberdintasunak onartuz eta errespetatuz.
2. Lana: enplegu duina sortzearen alde eginez, bai eta gizartean beharrezkoak diren lan guztien (ekoizpenekoak eta ugalketakoak) banaketa bidezkoa egitearen alde ere, barne hartuta merkatutik pasatu ez arren Ekonomia Solidarioan parte hartzen dugun emakume eta gizon guztien bizi-kalitaterako funtsezkoak direnak.
3. Ingurumen-iraunkortasuna: ekintza ekonomikoen muga modura, planetako bizitzaren oreka defendatzeko eta etorkizuneko konpromiso gisa.
4. Lankidetzak: ikaskuntza, elkarlaneko eraikuntza eta lankidetzako lana sustatzen dituen jardunbide ekonomiko partizipatibo eta demokratikoa.
5. Etekinaren alde batera uztea: emaitza ekonomikoez gain, aberastasunaren birbanaketa eta inbertsioa kontuan hartzen dituzten balantzeak, aberastasuna metatzea eta espekulazioa alde batera utzita.
6. Ingurunearekiko konpromisoa: erakunde eta sareekin lankidetzan aritzea, esperientzia zehatzok eredu sozioekonomiko alternatiboa sor dezaten.

Azken batean, Ekonomia Solidarioak ekonomia eta mundua aldatu nahi ditu, gizarte iraunkorrago, justuago eta demokratikoagoa lortzeko.

3 Garapenaren ideia hori bat dator Tokiko Giza Garapenaren ikuspegiak proposatutakoarekin. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Dubois, 2014 eta Guridi eta Perez de Mendiguren, 2016.

4 Bertsio osoa aurki dezakezu hemen: [<https://www.economiasolidaria.org/carta-de-principios>].

2. Merkatu kapitalistak bizitzaren aurka

Dagoeneko aipatu dugun moduan, merkatu kapitalistak bizitzaren iraunkortasunaren aurkako logikarekin funtzionatzen du; logika horrek balioa kendu die gure bizitzei eta gure planetari, eta bizitzari eusteko xedea duten lan guztiak ezkutuan utzi ditu. Ondorioz, oinarritzko kontraesana dago kapitalaren eta bizitzaren artean. Eta bitxia da; izan ere, agerikoa eta guztiz naturala iruditzen zaigu bizitzaren iraunkortasuna prozesu ekonomiko, sozial eta politiko ororen erdigunean jartzea, gizakiaren biziraupena eta bizi garen planetaren kontserbazioa lortzeko instintuagatik besterik ez bada ere. Gizarte eta zibilizazio moduan geure buruak antolatzen ditugun moduaren erdigunean egon beharko luke.

Alabaina, egiaz, gaur egungo sisteman, antolamendu ekonomiko, sozial eta politiko guztiaren erdigunean ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-prozesuek «merkatu askearen fundamentalismoarekiko» duten mendekotasuna dago, bai eta bizitzak androzentrismoko, indibidualismoko eta egoismoko balioekiko duen mendekotasuna ere. Eredu kapitalistak pertsona aberatsenei egiten die mesede, kapitalaren metaketa sustatzen du eta gero eta desberdinkeria handiagoak egotea eta mundu osoko milioika pertsona eta eskualde pobretzea eragiten du. Baliabide naturalak suntsitzen ditu, planetaren ahalmenaren gainetik, gure aztarna ekologikoaren hazkunde etengabeak erakusten duen moduan, eta aldaketa handiak eragiten ditu prozesu eta ziklo naturaletan: emaitzarik agerikoena klima-aldaketa da.

Gizakian, gizartean eta ekologian egindako kalte horien guztien jatorrian, kapitalismoaren xedea dago: ahalik eta irabazirik handiena lortzea enpresentzat, etekinik handiena kapitalarentzat; beraz, kapitalismoa ez da batere arduratzen aberastasunaren banaketaz, ezta kalitatezko enplegu gehiago sortzeaz ere, are gutxiago munduan bizi garen emakume eta gizonei bizitza duin, justu eta iraunkorra bermatzeaz, muga naturalak onartuta. Kapitalismoarentzat, jarduera ekonomikoak, ekoizpenekoak edo espekulaziokoak soilik du balioa, salgaiek merkatuan duten balioa, emaitzen kontuan irabazi bihurtzen den balioa, etekinik maximizatzeko etengabeko katea, sortutako hondamendi humanitario eta ekologikoez arduratzen ez dena.

Balioaren kontzeptua prezioaren kontzeptura murriztea kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazkaren jatorrian dagoen oinarritzko axioma da. Sistemarentzat, merkatutik igarotzen denak, eremu ekonomiko «aske» horren barruan trukutzen denak eta, ondorioz, diruzko balioa (prezioa) duenak soilik du balio ekonomikoa. Merkatu kapitalistatik kanpo gauzatzen diren gainerako jarduera ekonomiko guztiak (bizitza mantentzeko funtsezkoak) sistemak ekonomiari buruz duen ideiatik kanpo geratzen dira, balioa galtzen dute eta ikusezin bihurtzen dira. Beraz, ez dira egongo neurketa ekonomikoan, herrialdeen kontabilitateetan, eta pertsonen eta lurraldeen aberastasuna edo ongizatea ebaluatzeko erabiltzen diren adierazleetan (adibidez, Barne Produktu Gordinetik kanpo geratzen dira). Ohiko ekonomian, «merkatu kapitalistak egitura sozioekonomikoaren epizentroan kokatzen dira: haien prozesuak, erritmoak eta logikak gizarte osoarekiko gailentzen dira, eta bizitza, zentzu zabalean, haien zerbitzura jartzen dute; hain zuzen ere, bizitza merezi duen bizitzaren ideia bera eraikitzen dute» (Pérez Orozco, 2014:56).

Kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka hori merkatu kapitalisten funtzionamendu-mekanismoetan txertatutako askotariko alderdi eta arloen bidez jartzen da agerian. Ez ditugu guztiak jorratuko, baina uste dugu botere kapitalista eta heteropatriarkalaren zerbitzura dauden erakunde ekonomiko horien funtsezko ezaugarri batzuk nabarmendu behar direla.

Hasteko, pertsonak tresna hutsak gara, ekoizle edo kontsumitzaile modura ulertutako subjektu ekonomikoak, eta alde batera uzten dira bizitza arretaz tratatzea eragiten duten funtsezko alderdiak (banakoak eta taldekoak). Gainera, ahaztu egiten dira pertsona guztiei edozein testuinguru eta egoeratan bizitza duin, bidezko eta osasungarria izatea ahalbidetzen diguten eskubideak.


Bigarrenik, merkatuek kapitalismo neoliberallean duten rol nagusia berriz kokatu behar da. Aurre egin behar diogu «merkatuen diktadurari»⁵. Ekonomiak funtzio instrumentala hartu behar du, herritarrek parte hartzeko eta erabakiak hartzeko esfera demokratikoekin lotuta, eta bizi-baldintza duin eta iraunkorrak garatzeko xedez.

5 Gai horri buruz sakontzeko, ikus Medialdea (koord.) et al., 2011.

Hirugarrenik, jarduera ekonomikoa berriz lotu behar da pertsonen benetako premiekin (eta ez merkatuak eta hiperkontsumismoak sortutakoekin), gure tokiko komunitateen beharrekin (ondasun erkideak), gaur egungo kapitalismoaren izaera hazkundezale eta espekulatiboa gaindituz.

Laugarrenik, ezinbestekoa da ulertzea nola bizitzaren ugalketa sozialarekin eta zainketekin lotutako lanak diren kapitalismoak sistematikoki indar handiagoaz ezkutatu dituenak (ikus 2. irudia). Historikoki, emakumeek egin dituzte lanok, lanaren truke ordainik jaso gabe edo, bestela, egoera prekarioetan eta, betiere, ekonomikoki eta sozialki behar besteko aitortpena eta aintzatespena jaso gabe.

Cristina Carrascok dioen moduan: «Gizaki guztion premiak asetzeko lan egiten duen ekonomia iraunkorrak, guztion mundu sozial eta naturalaren ugalketa-gaitasuna mantenduta, buelta eman behar dio icebergaren harremanari, eta ekoizpena eta merkatua komunitateen eta pertsonen zerbitzura jarri» (Carrasco, 2014:41).



Iturria: ColaboraBora.

Bosgarrenik eta azkenik, merkatuek eta ekoizpenak behin eta berriz ahaztu dituzte planetaren mugak: baliabide guztiak neurririk gabe espoliatur (lurra, ura, mineralak...); axolagabeki tonaka hondakin sortuz eta baliabide naturalak atzera bueltarik gabe hondatuz. Merkatuek hondamendi hori ezkutatzen dute, eta ez dute aintzat hartzen, beste alde batera begiratzen dute agortzen ari diren baliabide mugatuen eta planetak leheneratzeko duen gaitasunaren narriaduraren aurrean. Horregatik, «gizakiak berriz kokatu behar dira, ekologiari eta elkarrekikotasuneko eta elkarri laguntzeko harremanei dagokienez, hori izan baita beren arrakasta ebolutiboaren arrazoia; horretarako, alfabetatze-ekologikoko lan handia egin behar da, eta bizitzaren kontserbazioa interesgunean kokatu behar dela barnerratu behar da» (Herrero, 2013:301).

Maila teorikoan, Ekonomia Solidarioaren, Ekonomia Feministaren, Ekonomia Ekologikoaren eta planteamendu dekolonialen baterako lanari esker, ekoizpen- eta ugalketa-lanaren, arlo politikoaren eta ekonomikoaren eta arlo publikoaren eta pertsonalaren arteko zatiketa horiek gainditu ahal izango ditugu, eta bitariko pentsamendu hori hausten eta ikusmolde sistemiko eta antikapitalistagoan aurrera egiten lagunduko diguten eztabaidak

hasiko ditugu. Baterako lan horri esker, halaber, bizitzaren iraunkortasuna sustatzen eta paradigma honen zentraltasuna onartzen duten alternatiba ekonomiko, sozial eta politikoak zehaztuko ditugu.


Alabaina, aurrerapen horiek ez dira nahikoak. Albi berean, Ekonomia Solidario gehiago eraiki behar dugu, bai eta pertsonen eta komunitateen zerbitzura dagoen merkatua ere. Enpresak eta Ekonomia Solidarioko sareak elkar topatzeko eta bizitzari eusteko kate horien inguruan egituratzeko merkatu alternatiboak sortu behar ditugu: Merkatu Sozialak behar ditugu.

3. Zer da merkatu soziala?

Merkatua gaur egungo sistema ekonomikoaren euskarrietako bat da, euskarri nagusia dela ez esatearren. Horregatik, kapitalismoa aldatu nahi duen proposamen kritiko orok, beste estrategia batzuen artean, merkatuan eragina izatea eduki behar du buruan, eta ordezeko aukerak eskaini behar ditu ikuspegi integral batetik, merkatuko eremuei (finantzaketa, ekoizpena, merkaturatzea eta kontsumoa) eta eragileei (enpresak, erakunde publikoak, erakunde sozialak, langileak eta kontsumitzaileak) dagokienez.

Merkatu alternatibo horren sustapenaren abiapuntuan uste sendo hau dago: «*munduko ekonomia kapitalistaren testuinguruan oztopo kontaezinak ager daitezkeen arren, askatasunez kidetutako eta kapitalak kontrolatu gabeko lankidetzako lan-formek gaitasun handia dute kapitalaren indar suntsitzaileei aurre egiteko, azpisistema ireki batean sortzen badira, baina barnean trukeko, lankidetzako eta elkartasuneko loturak baditu*» (Coraggio, 2006: 51).

Beraz, asmo handiko proposamena da, eta balio alternatiboetan oinarritutako sare ekonomikoak sortu nahi ditu; baliook, nagusiki, lankidetzako eta elkarlana sustatzearekin lotuta daude, merkatu kapitalistako lehiarekin eta jardunbide baztertzailerekin beharrean. Merkatu hori da «*ondasunak eta zerbitzuak ekonomia solidarioko enpresen, kontsumitzaile arduratsuen eta aurreztaile edo inbertitzaile etikoen artean trukatzeko sare egonkorra; truke horiekin, beren premien zati handi bat asetzen dute*» (Garcia Jané, 2010: 63).



Iturria: Jordi Garcia Jané (in Crespo eta Sabin, 2014:102).

REASen (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioen Sarea)⁶ azken 10 urteotako ahalegin gehienek erdigunean, hain zuzen, merkatu horiek lurraldeetan eraikitzea egon da, subjektu ekonomiko, sozial eta politiko bat sortzeko ildo estrategiko modura; helburua da subjektu horrek garrantzi handiagoa lor dezan, eta lehen bananduta edo, gutxienez, alternatiba garrantzitsuagoak proposatzeko beharrezkoa den lankidetzarik gabe garatzen ziren ekimen, sare eta tresnak egituratu ditzan (ikus 3. irudia).

Alde batetik aintzat hartu behar da zenbait ekimen finantzen, elikagaien eta energia berriztagarrien arlo estrategikoetan finkatu direla; bestalde, bidezko merkataritzan, leheneratzean eta birziklapenean edo merkaturatzeko zirkuitu laburretan izandako esperientziak garrantzia hartu du; eta azkenik alternatiba sozioekonomikoak, kontsumo kritiko eta eraldatzailea eta gizartea aldatzeko hezkuntza sustatzen dituzten gizarte-mugimenduen hazkundea ere eman da. Ekimen hauek guztiak merkatu sozial hori eraikitzeko jauzi kualitatibo eta kuantitatiboak egiteko proposamenak izan dira. REASen arabera, merkatu sozial hori da «*ondasun eta zerbitzuak ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko sare bat, irizpide etiko, demokratiko, ekologiko eta solidarioekin funtzionatzen duena, ekonomia sozial eta solidarioko enpresa eta erakundeek kontsumitzaile banako eta kolektiboekin batera sortua. Merkatu horren helburua da parte-hartzaileen premien zati handi bat asetzea sarearen barruan, eta ekonomia solidarioa ekonomia kapitalistatik aldentzea, ahal den neurrian*» (Ortega, 2016:35).

Sare horrentzat, merkatuaren printzipio gidariak elkar laguntzea eta lankidetzak dira; horregatik, merkatuaren bideragarritasun eta iraunkortasuna lortzeko, hiru arau ezartzen ditu, itxuraz errazak direnak:

- Sarearen osagai bakoitzak sarearen barruan ahal duen guztia kontsumitzeko konpromisoa hartzen du.
- Sarearen osagai bakoitzak sarearen barruan ahal duen guztia ekoizteko konpromisoa hartzen du.
- Sarearen osagai bakoitzak sarearekin lotutako beste ekimen batzuk sortzen lagunduko du, aurrezkiak eta soberakinak sarearen finantza-tresnetan jarrita.

Xedeari dagokionez, ekonomia solidarioaren ikuspegitik eta, bereziki, ekonomia feministaren ekarpenetatik abiatuta, merkatu sozialak (ekonomiak berak bezala), merkataritzaren eta ekoizpenaren arloz arduratzeaz gain, ugalketako eta zainketako lanak barne hartzen, ikusarazten eta nabarmentzen ditu, bai eta merkatutik igarotzen ez diren edo era alternatiboan igarotzen direnak ere.

Azken batean, merkatu soziala ez da lan-eremu bat (nahiz eta antolaketa-egitura jakin batekin antolatu), ez da jarduera bat edo jarduera multzo bat (nahiz eta tresnak, ekimenak eta jarduerak barne hartzen diren berori garatzeko); aldiz, ekonomia solidarioa haz dadin eragiteko estrategia bat da. Estrategia horrek helburu hauek ditu:

- a. Ikusgai jartzea eta sentikortzea. Ekonomia solidarioaren balio eta ekimenak hedatzeko funtsezko elementua da; hala, agerian jartzen ditu dauden alternatiba ekonomikoak eta aldaketa pertsonalak, komunitarioak eta instituzionalak sustatzen ditu, kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzailetik abiatuta, betiere, harreman ekonomiko bidezkoagoak, feministak eta ekologikoak sortuz eta sustatuz.
- b. Eragin ekonomikoan haztea. Merkatu sozialarekin ekonomia solidario gehiago eta hobeagoa egotea lortu nahi da eta, beraz, subjektu ekonomiko modura haztea: truke ekonomikoak ugartzea, enpleguen eta ekimenen arloan haztea, merkaturatzeko modu alternatibo eta eraginkorrek sustatzea, herritarren kontsumoan eta erosketan publikoan eragina izatea, proposamen ekonomikoak mailakatzea, sektore estrategikoetan eta beste eragile ekonomiko batzuetan eragina izatea, etab.
- c. Eragin politikoa izatea. Ekonomia solidarioko sareak mugimendu ekonomikoak dira, baina baita sozialak eta politikoak ere (ekonomia sozialaren arlo orokorreko beste ekimen batzuk ez bezala). Horregatik,

6 REAS Sareen Sarea egitura konfederal bat da, zeinak gaur egun, Espainian, lurraldeko 15 sare eta sektorekako 4 sare biltzen dituen (finantza etikoak, bidezko merkataritza, energia berriztagarriak kontsumitzeko eta hondakinak leheneratzeko kooperatibak). Informazio gehiago: [<http://www.economiasolidaria.org>].

merkatu sozialaren helburuetako bat politika publikoetan eragina izatea da, bereziki tokiko garapen ekonomikoarekin, erosketa publiko arduratsuekin eta, oro har, ondasun erkideak kontserbatzeko eta kudeatzeko xedea dutenekin lotuta daudenetan.

- d. Ekonomia solidarioaren eta berorren sareen onarpen eta erreferentzialtasun handiagoa lortzea gizarte-mugimendu eraldatzaile guztietan, eragile sozial, politiko eta ekonomikoei dagokienez, eta haren balioekin ekonomia osoan eragiteko gaitasuna hedatzea.
- e. Ekonomiako eta harremanetako komunitate bat sortu eta garatzea. Merkatu sozialak «komunitate alternatiboa» sortu nahi du, zeinetan ahalik eta harreman eta ekimen sozioekonomiko gehien ase eta garatu ahaliko diren, ahalik eta pertsona, komunitate eta erakunde gehienaren artean. Azken batean, herritarrentzat erreferentzia izatea, kontsumitzeari eta alternatiba ekonomikoetan parte hartzeari dagokienez.

Aipatu dugun moduan, merkatu hau garatzeko oinarritzko baldintza bat dago, hots, eragileen arteko lankidetzak; horretarako, jarduera hauek egin behar dira, gutxienez:

- ondasun eta zerbitzuen barne-kontsumoa handitzea (merkatu soziala osatzen duten erakundeena);
- eragileen arteko ezagutza, harremana eta lankidetzak areagotzera bideratutako jarduerak gauzatzea, baterako proiektuak garatu ahal izateko (topaketak, erakundeetako bisitak, *networking* delakoa, elkarlaneko gune eta proiektuen mapak, etab.);
- sare osoak bere barnean hartzea gizarte-oinarri handiak behar dituzten sektore estrategikoetako elkartze-proiektuak: finantza etikoak, elikadura-burujabetza, energia berriztagarriak, kultura eta informazio alternatiboak, etab.

Merkatu sozialak eragina izan nahi duen xede-taldeein dagokienez, segmentatzea komeni da, eraginkortasun handiagoa lortzeko, eta estrategia eta tresna egokituak garatzeko.

Hala, lehenengo maila batean, ekonomia solidarioeko erakundeen oinarri sozialak daude: langileak, boluntarioak eta bazkideak. Merkatua mantentzeko eremu oso garrantzitsua osatzen duten milaka pertsona dira. Alabaina, pertsonok ez dute era berean parte hartzen, eta ez diete merkatu sozialeko sektore guztiei laguntzen beren lan, militantzia eta kontsumoarekin. Beraz, hasteko, eremu horren gaitasuna garatu behar da, sarea bera baino hurbilagokoa eta eskuragarriagoa delako.

Bigarren maila batean, merkatu soziala hurbileko sare eta gizarte-mugimenduetako oinarri sozialez elikatuko da. Kontua da harremanak, aliantzak eta konpromisoak ezartzea, betiere, beste arlo batzuetan lan egiten duten arren ekonomiarik eta gizarte-eragile buruzko ikuspegi alternatibo eta eraldatzaile bera duten eragileekin. Askotariko eragileak dira: gizarte-mugimendu alternatiboak, esaterako, ekologista, feminista edo antimilitarista; auzoetako mugimenduak edo herritarren ekimenak; gizarte-ekintzako hirugarren sektorea; gobernuz kanpoko erakundeak; kontsumitzaile-elkarteak, etab. Gizarte-sektore zabal hori erabakigarria izan daiteke merkatu horren hazkundera, kontsumitzaile modura parte hartzen badute, edo elkartze-proiektuetan parte hartzen badute.

Kontratazio publiko arduratsuen estrategia ere mesede egin dakioke merkatu sozialaren hazkunderari, merkatu-erreserben bidez edo gizarte-klausula jakin batzuk sartuta. Hirugarrenik, erakunde publikoak ere xede-taldea dira, merkatu soziala bi ikuspegitatik susta dezaketelako: batetik, kontsumoaren bidez, oinarritzko produktuak, obrak eta zerbitzuak kontratatuzko eragileak direlako; bestetik, jarduerak finantzatzuz, herritarrekiko harremana izanez, garatzeko baliabideak eta guneak lagaz, etab.

Laugarrenik, balio alternatiboak sortzeko eta horiei buruz sentikortzeko eremu pribilegiatu bat aipatu behar da: hezkuntza. Dituena etapa eta adierazpen guztietan (arautuak eta ez-arautuak), sektore horretatik kontsumo kritiko, arduratsu eta erantzuleari buruz sentikortzeko, ekonomiaren ikuspegi alternatiboak emateko eta lankidetzako balioak garatzeko zeregin bereziak bideratu daitezke.

Azkenik, herritarrez orokorrean hitz egin dezakegu, baina uste dugu sektore zehatzetara zuzendu behar garela, hurbiltasunetik eta kutsatzeko gaitasunetik, gizarte-sektore berri gero eta handiagoak sartu ahal izateko merkatu horretan.

Nolanahi ere, eta merkatu soziala eta horren printzipioak, helburuak eta eragileak zehaztu ondoren, adierazi behar da, horrelako ekimen alternatibo eta asmo handiko bat benetan eginkorra izan dadin eta gaur egungo merkatuan eragin eraldatzailea izan dezan, hiru baldintza bete behar direla, gutxienez (Crespo eta Sabin, 2014:102):

- «Gizarte-mugimendu zabal eta trinko bat, ekonomia eta merkatua funtsezko gudu-zelai bihurtuko duena, bizi-baldintza hobekak, aberastasunaren banaketa eta iraunkortasuna lortzeko.
- Gutxienez, erakunde ordezkatzailerik, zeina gai izango den teorikoki deskribatzeko eta praktikan eta lurraldearen arabera sustatzeko eskura ditugun tresnak, dauden ekoizpen-, merkaturatze-, finantzaketa- eta kontsumo-ekimen ekonomikoak egituratzea eta indartzea ahalbidetzen dutenak.
- Beren kontsumo-ekintzekin aldatetaren protagonista sentitzen diren kontsumitzaile arduratsuen masa kritiko bat.

Oraindik ere, ez gara heldu baldintza horiek behar bezala lortzera, baina gero eta gehiago ari dira garatzen merkatu sozialaren sustapenean.

4. Merkatu soziala indartzeko tresnak

Aipatutako ezaugarriak dituen ekimen batek, jardunbide eta balio kapitalisten mendeko merkatu batean zabaltzeko dauden zailtasunekin, bere garapena ahalbidetzeko eta hazten laguntzeko tresna egokiak izan behar ditu. Garrantzitsuenak aipatuko ditugu, baina, horiez gain, merkatu sozialaren sustapena lortzeko lankidetzarekin lotuta lehenago aipatu ditugunak ere gehitu behar zaizkie.

Auditoretza soziala: konfiantza ziurtatzea

Lehenik eta behin, merkatu sozialaren helburu eta ezaugarriak azaldu ondoren, honako hau pentsatu behar da: nola bermatuko da enpresa eta erakunde parte-hartzaileak eta trukaturiko diren ondasun eta zerbitzuak ekonomia solidarioaren balioekin bat etortzea? Eta, bereziki, kontsumitzaileek nola jakin dezakete segurtasunez beren ekintza beren printzipioen arabera dela eraldatzailea?

Hala, beharrezkoa da «*analisirako, auditoretzako edo ziurtapeneko tresna bat izatea, printzipioak benetako jardunbideekin bat datozen ebaluatzeko, adierazle batzuen bitartez. (...) [Ohiko merkatuak] erakunde ziurtatzaile batek bermatutako zigiluak, kalitate-markak eta antzeko mekanismoak erabiltzen ditu (...), Merkatu Sozialean, berriz, "irudi-garbiketak" onartuko ez dituen berme "integral" baten alde egiten dugu (...). Lortu nahi dugun ziurtapen-sistema enpresa hornitzaileen, eta pertsona eta talde kontsumitzaileen arteko eztabaidako sistema demokratiko eta partizipatibo baten emaitza izan da*» (Hernández, 2012:124-125).

Beraz, kontua da berezko tresnak izatea, merkatu kapitalisten ziurtapenen logiketatik urrun, ekonomia solidarioaren jardunbideen ekarpen sozialak aintzat hartuko dituztenak, jarduera eta hutsuneak ebaluatuko dituztenak eta, aldi berean, etengabeko hobekuntzako tresnak izango direnak.

REASEk tresna bat sortu du (lurralde bakoitzera egokitutako bertsioak ditu), balantze soziala edo auditoretza soziala deitua. *Nola neurtu Ekonomia Sozial eta Solidarioko erakundeekin lotutako errentagarritasun sozial hori? Guk auditoretza sozialaren prozesuaren alde egiten dugu. Hala, NEF⁷ erakundearen arabera, auditoria*

7 New Economics Foundation: [<https://neweconomics.org>].

soziala da prozesu bat, zeinaren bidez erakundeek beren «eraginkortasun soziala» eta jokabide etikoa neur ditzaketen beren helburuei dagokienez; hala, beren emaitza sozialak hobetu ditzakete eta horien berri eman diezaiekete beren jarduerarekin konprometitutako pertsona guztiei. Tresna horren bidez, eragin sozial eta solidario hori neurtu, ebaluatu eta zuzendu daiteke, haien eta nahastutako gainerako eragileen helburu eta balioen arabera. Laburbilduz, hiru kontzeptu hauek elkartzen dira: autoebaluazioa, gardentasuneko konpromisoa eta kudeaketa-tresna (Naveda, 2016: 36).

Lineako tresna baten bidez, REASEk mugimenduaren errealitatera egokitutako auditoretza sozialeko proposamen bat gauzatu du, elkarlanean, Ekonomia Solidarioaren Gutuneko sei printzipioen betetze-maila ebaluatzen duten adierazle kuantitatibo eta kualitatibo batzuen bitartez. Nolabait, hori betetzea eta jakinaraztea enpresa edo erakunde bat eta horren produktu eta zerbitzuak merkatu sozialean sartzeari ahalbidetzen duen «konfiantzazko zigilua» da.

Alabaina, gainera, tresnak badu beste balio erantsi bat: merkatu sozialean parte hartzen duten erakunde guztien datuak sar daitezke; beraz, ekonomia solidarioaren sektore osoak lurraldean duen errealitatea jakinarazteko eta agerian jartzeko aukera ematen du.

Hedatzea eta merkaturatzea

Jakina, hedatzeko eta merkaturatzeko lanak egin behar dira (eta erronka dira) merkatu soziala sustatzeko. Ekonomia solidarioaren sektorea agerian jartzeko, horren produktu eta zerbitzuetara heltzeko, dituen jardunbideen oinarriko balio alternatiboak jakinarazteko eta herritarren sektore garrantzitsuek zirkuitu ekonomiko horietan parte hartzeko ahalegin handia egin behar da gizartea sentikortzeko lanetan eta merkaturatzea eta kontsumoa erraztuko duten tresnak zabaltzen.

Ikuspegi horretatik, merkatu honen proposamena agerian jarri, herritarrengana hurbildu, horri buruz kontzientziatu daitezen eta kontsumoaren eta/edo babesaren bidez parte har dezaten lortu nahi duten jardunbide multzo bat aurkitzen dugu:

- Komunikazio-kanpaina, -ekintza eta -euskarriak, kontsumo kontziente, kritiko eta eraldatzailearen arlokoak, bai eta ekonomia solidarioa, merkatu soziala eta merkatu sozialeko produktu eta zerbitzuak aurkeztekoak ere (liburuxkak, komunikabide alternatibo eta tradizionaletako albisteak, sare sozialak, iragarkiak, e-mail bidezko marketina, txartel-gordailuak, jokoak, bideoak...).
- Erakundeak, produktuak eta zerbitzuak jarduera-sektorearen arabera modu erraz eta eskuragarrian aurkezten dituzten eta beroriek aurkitzea eta kontsumitzea errazten duten katalogoak.
- Katalogo birtual bat aurkezteko, ordainketa-pasabideak ezartzeko, zerbitzuen aurrekontuak eskatzeko eta trukeetan moneta sozialak erabiltzeko aukera ematen duten web-tresnak.
- Web-tresnek bezala, merkatu sozialaren barruan merkaturatzeko eta kontsumitzeko erraztasunak ematen dituen APP bat, erakunde eta kontsumitzaileen artean lankidetzako harremanak ezartzeko aukera emango duena.
- Merkatu sozialaren fidelizatorako tresnak (elkarte-txartela, hobariak, beherapenak...).
- Auditoretza Sozialeko tresnaren bidez, erakunde eta enpresetan eta horien produktu eta zerbitzuetan ekonomia solidarioaren sektoreko identifikazio-zigilu bat erabilita, eta emaitzak banakako eta taldeko infografietan komunikatuta.

Seguruena, komunikazioko tresna eta jardunbide egoki asko susta daitezke, betiere, xede-talde bakoitzari egokitutako ikuspegitik, eta emaitzak lortzeko eraginkortasuneko irizpideetatik abiatuta.

Alabaina, ekintza horietatik eta horietan egin daitezkeen hobekuntzetatik harago, beste ekintza batzuk egin daitezke: bestelako merkataritza-zeregin batzuk barne hartzen dituzten gailuak sustatzea, plataforma

logistiko erkideak sortzea, edo gune fisiko edo denda partekatuen sare bat eratzea, non merkatu sozialeko produktuak, zerbitzuak eta informazioa aurkitu ahalko den.

Horrelako ekintzak hasiberriak dira, eta, oraindik ere, nagusiki, banaka edo sektorialki egiten dituzte enpresa eta erakunde batzuek, eta ez dira enpresa eta erakundeon zeregin nagusien artean aurkitzen. Alabaina, uste dugu horrelako ekimenak sustatzea erabakigarria izango dela hazkunde handia eta inpaktu sozial eta ekonomiko handiagoa izateko.

Ekonomia solidarioaren azokak eta jaialdiak

Orain arte, merkatu soziala ekonomia solidarioaren azokak (lurraldekoak urtero eta tokiko txikiagoak) egitearekin identifikatu izan da, hein handi batean.

Azokok funtzio garrantzitsua dute: ekonomia solidarioaren erakusleihoa izatea, berori sustatzeko, hedatzeko eta haz dadin bultzatzeko. Ekimen horren bidez lortu nahi dena da gurekin lan egiten duten xede-taldeek eta, oro har, herritarrek ekimen eraldatzaileak aurkitzea, alternatiba zehatzak ezagutzea, ekonomia solidarioaren sektore osoa ulertzea eta horrekin «nahastea» (kontsumituz, proiektu batean parte hartuz, etab.). Bestetik, parte hartzen duten erakunde eta enpresentzat eremu ezin hobea da ezagutza eta harremana sustatzeko, elkarlanean eta lankidetzan aritzeko, eta beren oinarri sozialak partekatu eta lotzeko.

Ikuspegi horretatik, aztertu behar da nola azoka horiek ekonomia solidarioaren gaur egungo inpaktua erakuts dezaketen, nola eragin dezaketen gure xede-taldeetan pedagogikoki eta ludikoki, nola nahasten dituzten beste eragile batzuk...

Alabaina, horrez gain, azoka tresna bat izan behar da (beste askoren artean), merkatu soziala eta ekonomia solidarioa sustatzeko ikuspegi estrategiko baten zerbitzura. Ikuspegi horretatik, komeni da azokaren helburuak eta garapena berrikustea, merkataritza-azoken eredu tradizionala agortu eta motz geratu daitekeelako.

Hain zuzen, azokaren egiturak berak, sarritan, ezkutatu egiten ditu ekoizpen-lana, ugalketa-lana eta ekonomia solidarioaren barruan dauden beste harreman ekonomiko eta sozial alternatibo batzuk. Behin eta berriz sortzen den eztabaida horretatik ez dira beti jardunbide alternatiboak ateratzen, hala azokak erakusten duenari nola antolamenduari dagokienez. Sare batzuek, REAS Euskadi sareak, esaterako, dagoeneko garatu dituzte proposamen batzuk, besteak beste, ugalketa-lanen banaketa bidezkoa sustatzea, azokan atseden hartzeko eta zainketarako gune bat sortzea eta gida simple batzuk prestatzea⁸.

Formatua zehazteari dagokionez, proposamen bat indarra hartzen ari da: azoka urteko jaialdi bihurtzea; bertan, mugimenduko erakunde, enpresa eta banakoen topaketa- eta truke-eremuak sustatuko dira, erabilgarria izango da erakundeentzat eta parte hartzea erraza eta eroso izango da. Halaber, beste xede-talde batzuk segmentatuko ditu, proposamen didaktiko eta ludiko erakargarriagoekin, eta haurrentzako, aisiarako, kulturarako eta zainketetako eremuak indartuko ditu; hori guztia erakargarria izan daiteke herritarren sektore askorentzat.

Azken batean, kontua da helarazi, saldu edo partekatu nahi dugunera egokituago dauden eta eraginkorrako diren elementu berritzaileak sartzeko, eta ekonomia solidarioaren identitatea indartuko duen jai-giroko topagunea izan dadin lortzea, alde batera utzi gabe merkatu soziala sortzeko beste tresna batzuk eta urte osoko lan jarraitua beharrezkoak direla.

8 «Cultiva los cuidados y crecerá economía solidaria y feminista»: [<https://bit.ly/2KmrWxl>].

Moneta komunitarioak, truke-sareak eta finantzaketa

Azkenik, zirkuitu ekonomiko berri honen esparruko moneta komunitarioen erabilera aipatu behar da. Moneta horiek «*pertsonen eta/edo enpresen artean produktuak eta zerbitzuak trukatzeko edo salerosteko sistema dira, moneta ofiziala beharrean komunitate batek arautzen duena erabiliz. Izen hauek izaten ditu: moneta soziala, alternatiboa, osagarria, paraleloa, tokikoa, askea edo herritarra*» (Garcia Jané, 2017:156).

Horrelako askotariko monetak daude, bakoitza bere irizpideekin eta sistemarekin. Batzuen helburua lurralde jakin bateko tokiko ekonomia indartzea da, beste batzuen, berriz, sare jakin batean trukeak sustatzea, eta moneta batzuek balio alternatibo jakin batzuekin lotu nahi dute kontsumoa (ekologia, feminismoa, kultura eta hizkuntza minorizatuak...). Batzuek moneta fisikoa erabiltzen dute, eta, beste batzuek, birtuala. Batzuetan, tokiko erakunde publikoek edo herritarren sareek eta gizarte-mugimenduek sustatzen dituzte. Batzuk moneta ofizialarekin batera erabiltzen dira, eta beste batzuek, berriz, sistema konplexuagoak erabiltzen dituzte⁹.

Merkatu sozialaren esparruan, horrelako monetak sar daitezke (izan ere, dagoeneko badaude horrelako esperientzia hasiberri batzuk), sarearen autonomia eta espazioaren eraikuntza indartzeko, bai eta kontsumoa ekonomia solidarioko produktu eta zerbitzuetara bideratzeko ere. Halaber, funtzionamendu kapitalistatik askatutako eremuak sortzea da helburua; horiei esker, sarritan sinbolikoki soilik bada ere, kapitalismoaren berezko espekulazioarekin eta irabaziak handitzearekin loturarik ez duen moneta- eta merkataritza-erakundea diseina daitekeela erakusten da.

Gainera, moneta hauek merkatu sozialean sar daitezke kontsumitzaileak fidelizatzeko xedez, bai eta moneta horretan hobariak ezarri eta merkatuaren hazkundera sustatzeko ere.

Agerikoa denez, aukera asko ematen dituzte horrelako monetek, nahiz eta oraindik ere garapen mugatua duten merkatu sozialean. Bestetik, monetok erabiltzea nahiko zaila izaten da sarritan, eta horrelako gaietan kontzientziatu eta espezializatu gabeko herritarrek ulertzea zaila izaten da. Nolanahi ere, horrelakoak sartzen joatea, ohiko monetarekin batera erabili arren, tresna garrantzitsua izan daiteke merkatu soziala indartzeko eta haztera bultzatzeko.

Alabaina, moneta komunitarioez gain, merkatu sozialaren balio alternatiboan indartzen lagun dezaketen dirurik gabeko truke motak daude. Merkatuan, truke-sareak egin daitezke erakunde eta pertsonen artean, tokiko denbora-bankuak susta daitezke, eremuak eta baliabideak trukatzeko sareak, «gauzen bankuak», behar duguna erosi gabe eskuratzeko gune modura, mugikortasun partekatuko sareak, etab. Azken batean, kontua da ekonomia komunitarioek eta elkarlaneko eta lankidetzako tresnek rol garrantzitsua izatea merkatu sozialak agerian jarri eta sustatu nahi duen ekonomia alternatibo horren diseinuan.

Azkenik, esan behar da finantzaketa-tresnak tresna garrantzitsua direla merkatu soziala garatzeko. Hasieran, merkatuaren osagai moduan aipatu ditugun arren, garrantzitsua da duten zeregin erabakigarria aipatzea. Aipatutakoa bezalako funtzionamendu alternatiboa izan nahi duen merkatuak bere finantza-tresnak izan behar ditu banku kapitalistarekiko mendekotasunetik pixkanaka aldentzeko.

Merkatua garatzeko ezinbestekoa da finantza-tresna etiko eta alternatiboak egotea (bankarioak eta parabankarioak). Ekonomia solidarioaren sektoreak berak sortu eta mantendu behar ditu tresnok, aurrezteak eta irabaziak merkatuan bertan gordetzea sustatuta, bai eta gero eta herritar gehiagok merkatuko finantza-produktuak kontsumitu dituzan bultzatuta ere. Tresnok lankidetzakoak eta demokratikoak izan behar dute, balio etikoak eta irabazietara bideratu gabekoak izan behar dituzte, eta ekonomia solidarioaren sektorea eta eraldaketa soziala finantzatzeko xedea izan behar dute, nagusiki.

9 Horrelako monetei buruz eta truke alternatiboko beste tresna batzuei buruz gehiago jakiteko, ikus Gisbert (2010).

5. Merkatu sozialera eta harago...

Dokumentu honetan, ekonomia eraldatzeko erabakigarria den estrategia honen garrantzia azpimarratu nahi izan dugu; izan ere, ekonomiaren bi zutabe nagusiak ditu helburu: merkatua eta kontsumoa. Badakigu oraindik ere muga handiak dituztela merkatu sozialak, ekonomia solidarioak eta, orokorrean, proposamen ekonomiko alternatiboek. Era berean, badakigu gaur egungo merkatua asko aldatzeko, merkatu soziala hazteaz gain, aldaketa ekonomiko eta sozial handiak egon behar direla eta egitura eraldatzeko politikak garatu behar direla.

Hala ere, merkatu sozialak erakusten digu erakunde sozial eta ekonomiko postkapitalista bat izan daitekeenaren silueta marraz dezakegula, demokraziaren, lankidetzaren, bizitzaren iraunkortasuna bermatzearen eta elkertasun eta inklusioaren printzipioez gidatuta. Beraz, kontrakulturarekin eta balio-sistema oso desberdina garatzearekin lotutako zeregina dugu aurrean.

Duela gutxi, Isaac Rosa elkarrizketatu zuten, bere azken eleberria (*Feliz Final*) dela-eta; elkarrizketan, hau adierazi zuen: «*kapitalismoa gure bizitzetan sartu da, geratzen zen azken horma bota du eta barru-barruan sartu zaigu; gure maitatzeko gaitasunean. Lan-prekarietateaz harago, zeinak, jakina, eragina duen gure harremanetan, uste dut ulertu behar dugula kapitalismoa ez dela sistema ekonomiko hutsa; horrez gain, edo nagusiki, sistema kulturala da, eta bizi-prekarietatea sortzen du, hots, etenkako bizitza urduriak eragiten ditu, etsipena eta malenkonia dakartenak. Hortik kontsumitzen eta lan egiten dugu, eta, bai, hortik maitatzen dugu*»¹⁰. Merkatu sozialaren proposamenaren xede apala, batetik, merkatu ekonomikotzat ulertzen duguna eraldatzea da; bestetik, gure harreman, lan eta bizitzak ahalik eta gehien aldendu nahi ditu gure gorputz eta sentimenduak prekarizatzen eta merkaturatzen dituen kapitalismo inbaditzaile horretatik. Asmo handiko apustua da, ekonomia solidarioa izatea lortzeko, osterantzean bizitzaren jasanezintasunaren ankerkeriara eramango baikaitu, ezinbestean.

Bibliografia

- ASKUNZE, Carlos (2007): «Economía Solidaria» in Celorio, Gema eta Alicia López de Munain (koord.): *Diccionario de Educación para el desarrollo*, Hegoa, Bilbao, 107.-113. or.
- ASKUNZE; Carlos (2013): «Más allá del capitalismo: alternativas desde la economía Solidaria», *Documentación Social* 168. zk., Cáritas Española, Madril, 97.-116. or.
- CARRASCO, Cristina (2014): «Economía, trabajos y sostenibilidad de la vida» in hainbat egile: *Sostenibilidad de la vida. Aportaciones desde la Economía Solidaria, Feminista y Ecológica*, REAS Euskadi, Bilbo, 27.-42. or.
- CORAGGIO, José Luis (2006): «Sobre la sostenibilidad de los emprendimientos mercantiles de la economía social y solidaria», *Cuadernos del CENDES* 61. zk., Universidad Central de Venezuela, Caracas, 39.-67. or.
- CRESPO, Blanca eta SABÍN, Fernando (2014): «Los mercados sociales. La economía solidaria en acción transformadora», *Documentación Social* 174. or., Cáritas Española, Madril, 95.-116. or.
- DIEZ, María Angeles eta ASKUNZE, Carlos (2018): «Transformar la economía para transformar el territorio. La Economía Social y Solidaria y el Desarrollo Humano Local», *Dossieres EsF* 31. zk., Madril, 29.-33. or.
- DUBOIS, Alfonso (2014): *Marco teórico y metodológico del Desarrollo Humano Local*, Hegoa eta EHU, Bilbo.
- GARCIA, Jordi (2010): «La economía solidaria no está en paro», *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global* 110. zk., FUHEM, Madril, 53.-65. or.
- GARCIA, Jordi (2017): *L'èconomia solidària en 100 paraules*, Icaria, Bartzelona.

10 Isaac Rosa, Juan Losak elkarrizketatua, *Público* egunkarian, 2018ko urriaren 3an: [<https://bit.ly/2NZMT3M>].

- GISBERT, Julio (2010): *Vivir sin empleo. Trueque, bancos de tiempo, monedas sociales y otras alternativas*, Los libros del lince, Bartzelona.
- GURIDI, Luis eta PÉREZ DE MENDIGUREN, Juan Carlos (2016): «La Economía Social y Solidaria y el Desarrollo Humano Local» in PEREZ HERNANDORENA, Zalao (koord.): *Lurraldeak ekonomia solidariotik eraldatzen. Herramientas para el impulso de las políticas públicas locales*, REAS Euskadi, Bilbo, 15.-17. or.
- HERNÁNDEZ, Toño (2012): «Mercado Social: construir y experimentar proyectos económicos alternativos», *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global* 118. zk., FUHEM, Madril, 119.-128. or.
- HERRERO, Yayo (2013): «Miradas ecofeministas para transitar a un mundo justo y sostenible», *Revista de Economía Crítica* 16. zk., Madril, 278.-307. or.
- HERRERO, Yayo (2014): «Perspectivas ecofeministas para la construcción de una economía compatible con una vida buena» in hainbat egile: *Sostenibilidad de la vida. Aportaciones desde la Economía Solidaria, Feminista y ecológica*, REAS Euskadi, Bilba, 55.-68. or.
- MEDIALDEA, Bibiana (koord.), SANABRIA Antonio, BUENDÍA Luis, ÁLVAREZ Nacho eta MOLERO Ricardo (2011): *Quiénes son los mercados y cómo nos gobiernan*, Icaria, Bartzelona.
- NAVEDA, Amaia (2016): «Auditoría Social, más allá de la cuenta de resultados», *Pueblos* 71. zk., Paz con Dignidad, Madril, 36.-37. or.
- ORTEGA, Susana (2016): «El Mercado Social, una herramienta al servicio de la economía social y solidaria», *Pueblos* 71. zk., Paz con Dignidad, Madril, 34.-35. or.
- PEREZ DE MENDIGUREN, Juan Carlos; ETXEZARRETA Enekoitz eta GURIDI Luis, (2009): «Economía Social, Empresa Social y Economía Solidaria: diferentes conceptos para un mismo debate», *Papeles de Economía Solidaria* 1. zk., Reas Euskadi, Bilbo.
- PEREZ OROZCO, Amaia (2014): *Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate del conflicto capital-vida*, Traficantes de Sueños, Madril.

- 1. Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
- 2. Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
- 3. Garapena feminismitik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 4. Garapenerako lankidetzaren eta bere bilakaera.** Irati Labaien Eguiguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 5. Amildegia: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 6. Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- 7. Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- 8. Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martínez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- 9. XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratua, Hegoa Institutua.
- 10. Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Efrén Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldúa, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
- 11. 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOIA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- 12. Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUko Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
- 13. Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.
- 14. Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.** Cristina de la Cruz-Ayuso, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.
- 15. Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia.** Carlos Askunze Elizaga, REAS Euskadi. María Angeles Díez López, UPV/EHUko Hegoa Institutua eta REAS Euskadi.

